

Philae espazio moduluaren jauziak Tchuri kometan

ESA-CC By SA



AZAROAREN 12AN, Europako Espazio Agentziak (ESA) bidalitako *Rosetta* zundaren *Philae* moduluak lur hartu zuen 67P kometan. Kometa horrek Churyumov-Gerasimenko du beste izena, eta Tchuri ere esaten zaio.

Ikustekoak izan ziren ESAko teknikarien algarak eta besarkadak *Philae*-ren lurartzea iragartzean, ez baitzen txantxetako lana izan 50 milioi kilometrora dagoen harri puskan zunda kokatzea.

Egunak igarota, xehetasun gehiago jasoen lurrartzearen uneaz eta bertan gertatutakoaz. Antza, *Philae*-k kalkulaturako lekuan pausatu zen, segundoko 50 zentimetroko abiadura zuela, baina motelgailuek ez zuten lurrartzearen talka arindu, eta ontziak kilometro bateko jauzia egin zuen. Berritua lurra hartu eta beste jauzitxo bat egin zuen, eta hirugarren saiakeran, azkenik, kometa gainean gelditu zen. Jauzien zergatia kometaren grabitate txikia da. *Philae*-k ia 100 kilogramoko pisua du Lurrean, baina gramo batekoa besterik ez kometan.

Gertatutakoaren ondorioz, *Philae*-ren kokapena ez da espero zena. Modulua itzal eremu batean pausatu zenez, bateriak kargatu ezinik zegoen lerro hauek idazteko unean. Bolada baterako isilik geratu da, beraz, eguzkiaren izpien zain. ■



15 urteko etenaren ondoren, itsasoan beroketa berriz abian

AZKEN HAMABOST URTEOTAN ez da aldaketa esanguratsurik izan Lurreko itsasoetan neurtutako tenperaturetan. 1998an El Niñoren ondorioz izandako tenperatura hazkundeak 2014ra arte iraun du.

Aurten, aldiz, beste igoera bat gertatzen ari da, batez ere Ozeano Barearen iparrean nabaritu dena. Horrekin batera, alisio haize freskoak inoizko ahulenak izan dira. Behin betiko ondorioak ateratzeko goiz samar bada ere, 2014 hasierako tenperatura hazkundeak urte osoa iraun du eta horrek zientzialarien arreta bereganatu du. ■



BROCKEN INAGLORY-CC BY SA



Ama hizkuntza ahaztu arren, garunean gelditzen da

Kanadako frantses hiztunekin egindako ikerketa baten arabera, gure burmuinak erreakzionatu egiten du txikitari ikasitako eta ondoren ahaztutako hizkuntza bateko soinuak entzuten ditugunean. Emaitzek berretsi egiten dute bizitzaren hasierako urteak oso garrantzitsuak direla ahalmen mentalak eraikitzeko.

ttiki.com/90858
(Frantsesez)

Fabiola Gianotti, CERNeko buru berria

Ikerkuntzaren alorrean gero eta emakume gehiago dagoela begien bistakoa da, baina euren lana ikerkuntzara mugatzen da gehienetan; gutxitan dihardute ikerketa-zentroen kudeaketan. Berriki, berdintasunaren bidean urrats esanguratsua egin da: munduan dagoen ikerketa zentrorik garrantzitsuenak, Genevako CERNek, iragarri du 2016tik aurrera Fabiola Gianotti italiarra izango dela bertako zuzendaria.

ttiki.com/90859
(Gaztelaniaz)

Gosari egokiak gosea erregulatzen du

AEBetako ikertalde baten arabera, proteinetan aberatsa den gosaria jateak egun osoko gosea erregulatzen laguntzen du, eta batez ere gauekoa. Horrela, hobeto lo egiteaz gain, hainbeste hedatzen ari den gizentasuna hobeto kontrolatu daiteke.

ttiki.com/90860
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16